

DEBA ETA ZEZENAK

DEBA Y LOS TOROS



Inongo zalantzarik gabe, Debak zezenekin milaka urtetako harremana duela esan dezakegu. Gure historiaurrea, gure kobazulo eta gure labar arteari buruz egindako azterketek egiaztatzen dituzte neolitikoko garaiko faunan bobido handien eta uroaren aztarnak.

Datu dokumentalek egiaztatzen dute Gipuzkoan antzina-antzinatik izan direla zezenak festetan. Eta jakin badakigu, 1160an, "Nafarroako Jakintsua" Sancho VI.a erregeak Soraluzera egin zuen bisitaldian zezen-festa izan zela. Izan ere, erregearen aginduz inguruko mendietan harrapatutako hiru zezen toreatu zituzten. Debako zezenketei buruzko lehen albiste ofiziala 1601eko da, Udaleko Artxibo Historikoko 20. kontu liburuan (1590-1643) jasota dago, eta besteak beste, honakoa aipatzen da: "(...) eta Joan de Etxanizi ordaindu zizkion hiru dukat San Roke egunean toreatzeko eman zuen zezenagatik".



Enbolatuak plazan.
Embolados en la plaza.

Gaur egun ere herriko zaindariaren jaiak San Roke egunean ospatzen dira, abuztuaren 16ko astean. Zezen-ikuskitzunean funtsezko papera dute, eta udaletxeko plazan jartzen den zezen-plaza karratuan egiten dira. Oso plaza zaharra eta berezia da.

Deban zezenak Erdi Arotik toreatzen direla egiaztatzen duen lehenengo erreferentziatiko bat Juan Venancio Araquistainek eman zuen, 1866an argitaratutako *Tradiciones Vasco-Cántabras* liburuan. Bertan jasotzen da Alostorreako kondaira ezaguna, "Gau-Illa", Deba inguruan XV. mendean kantatzen ziren bertso batzuei buruzkoa. Ahalpaldi batean elezaharreko protagonistaren jaiotza-ospakizunari buruz ari denean zezenak aipatzen ditu:

*Amandria neria nizabi erdi eguin zanian,
milla ollo ill eta ezcaratzian,
zazpi cecen corritu ere enparantzian (...)*

BETIZUA: EUSKAL ZEZENA DEBAN

Debarron zezen-zaletasuna mendeetan zehar herriko mendietan eman den zezen suharren hazkuntzan oinarrituta dago. Gipuzkoako abelburu suharren ganadutegi garrantzitsuenak kokatzen ziren hemen. Argi dago zergatik: "Betizua", bobido basatia, Euskal Herriko zezen gorria, gure mendietan antzina-antzinatik bizi izan dena, oso ugaria zen. Altuera txikiako zezen kementsu eta biziak dira. Beraiekin egin ziren lehen zezenketak eta beraiekin sortu zen zezen-zaletasuna. Lasturko zezenak ospetsuak dira lurralde osoan, Lasturren aurkitzen da gainera Euskal Herriko zezen-plazari zaharrena, eta hantxe egiten dira gaur egun ere kapeak eta zezen-ikuskitzuna. Deban, oraindik ere

gelditzen dira abelburu suharren ganadutegiak: Zelailuze Endoian, eta Lizarran eta Saka Arriolan. Azken hau herrigunetik oso hurbil dago, bi kilometrora besterik ez oinez; abelburu suharren ganadutegien elkar-tekhoa da eta berezko burdin marka du. Ganadutegia ikusteko aukera eskaintzen dute eta kapeak egiteko plaza ere badute.

Debarron zezen-zaletasun handia azaltzen duten bi gertaera: Juan Bautista Ituarte "Vizcaino" Debako toreatzaileak Buenos Aireseko (Argentinako) Plaza Nagusian toreatu zuen 1772an. Jose Ituarte "Zapaterillo el joven"ek, toreatzaile debarra hau ere, Iruñeko Gaztelu Plazan egin zen azken korridako azken zezena hiltzeko ohorea izan zuen 1843an.



Zezen plaza - Plaza de toros

ENTZIERROA

Ez dakigu Debako entzierroen jatorria zein den, baina bistan da Nafarroatik Debara ekartzen ziren zezenekin zerikusia duela. Ez dakigu ezta ere noiz hasi ziren, baina dirudienez XIX. mendeko azken hereneko urteetara atzera egiten dute. Egun, Deba da arratsaldeko korridetan hilko diren zezenekin entzierroak egiten dituen Euskal Autonomia Erkidegoko herri bakarra.

Entzierroaren ibilbidea Osioko ukuiuetan hasten da. 450 metro daude handik zezen-plazara arte; beraz, ikuskizun laburra baina hungigarria da, bizia eta azkarra. Baldintza normaletan ez du minutu eta erdi baino gehiago irauten. Ibilbideak zati ezberdinak ditu, eta korrikalariak, bakoitzaren gustuen arabera, aukeratzeko dituzte. Entzierroa baino lehen gaiteroek eta herriko musika bandak kaleetan zehar "Diana" jotzen dute, eta noski, berta-bertakoa den "Dira, dira" pieza ez da inoiz falta izaten.

Sin temor a equívocos, podemos afirmar que Deba tiene una relación milenaria con el toro. Los estudios de nuestra prehistoria, de nuestras cuevas y de nuestro arte rupestre confirman la existencia de restos de bóvidos y del uro en la fauna del neolítico.

Datos documentales acreditan que en Gipuzkoa, desde muy antiguo, se organizaban fiestas con toros. Se tienen noticias de que en el año 1160, con motivo de la visita del rey Sancho VI "el Sabio" de Navarra a Soraluze, se celebró un festejo taurino lidiándose tres toros que el rey había ordenado capturar en los montes del lugar. La primera noticia oficial referente a las corridas debarra data de 1601, según consta en el libro de cuentas nº 20 (1590-1643) del Ayuntamiento de Deba, donde se señala entre otras cosas: "... y tres ducados que pago a joan de echaniz por un toro que dio para correr el día sanroque".



Entzierroa. Zezenak plazara sartzen (1962).
Encierro. Entrada de los toros a la plaza (1962).

Hoy en día, las fiestas patronales se siguen celebrando el día de San Roque, la semana del 16 de agosto, en la que los festejos con toros tienen un papel esencial. Se celebran los festejos en una genuina plaza cuadrada muy antigua que se monta en la plaza del ayuntamiento.

No obstante, una de las primeras referencias que nos hablan de que en Deba ya se corrían toros desde la Edad Media la aporta el escritor debarra Juan Venancio Araquistain en su obra *Tradiciones Vasco-Cántabras*, editada en 1866. En ella nos relata una de las populares leyendas de Deba, la de la Torre de Alós, "Gau-Illa" (*Noche de muerte*), que gira en torno a unos versos que se cantaban en la zona de Deba en el siglo XV, y que en una de sus estrofas mencionaban el juego de los toros para la celebración del nacimiento de la protagonista de la leyenda:

*Cuando mi señora madre
se abrió en dos para darme a luz,
mil gallinas murieron en las cocinas.
Siete toros se corrieron en nuestra plazuela (...)*

BETIZU: EL TORO VASCO EN DEBA

La afición de los debarra al arte de correr los toros viene justificada por siglos y siglos dedicados a la cría de ganado bravo en los montes del municipio. En ellos se han asentado las ganaderías de reses bravas más importantes de Gipuzkoa. Esto se explica porque en esos montes abundaba desde tiempos remotos el "betizu", el bóbido salvaje, el toro rojo de Euskal Herria, un toro de pequeña alzada pero con mucho nervio. Con él comienzan las primeras corridas, y con él nace también la afición. Son célebres en todo el territorio los toros de Lastur, lugar en el que está ubicada la plaza de toros de las más antiguas de Euskal Herria y en la que se siguen celebrando capeas y otros festejos taurinos. Hoy siguen existiendo ganaderías de reses bravas en Deba: Zelailuze en Endoia, y Lizarran y Saka en Arriola. Esta última, a sólo dos kilómetros a pie desde el casco de Deba, pertenece a la asociación de ganaderos de reses bravas y tiene hierro propio. Es visitable y tiene una plaza para capeas.



Zezenak Arriolan.
Toros en Arriola.

Dos hechos que ilustran la histórica afición de los debarra por el toro: en 1772, el torero de Deba Juan Bautista Ituarte "el Vizcaino" toreó en la Plaza Mayor de Buenos Aires (Argentina). En 1843, el también torero debarra José Ituarte "Zapaterillo el joven", tuvo el honor de matar el último toro de la última corrida celebrada en la Plaza del Castillo de Pamplona.

EI ENCIERRO

Se desconoce el origen del encierro en Deba, pero parece evidente que tiene que ver con el traslado de los novillos desde Navarra a Deba. Se desconoce también la fecha exacta en la que comenzaron a celebrarse, pero al parecer se podrían remontar al último tercio del siglo XIX. En la actualidad, Deba es el único pueblo de la Comunidad Autónoma del País Vasco donde se celebran encierros con los mismos novillos que se lidiarán en el festejo taurino de la tarde.

El recorrido del encierro, que se inicia en los corrales de Osio, tiene una distancia aproximada de 450 metros hasta la plaza, lo que hace que éste sea un espectáculo breve pero emocionante, intenso y rápido, que en condiciones normales no durará más de minuto y medio. Es un recorrido en el que hay varios tramos diferenciados entre sí y que son elegidos por los corredores según sus preferencias. Previo a los encierros, los gaiteros y la banda municipal de música recorren las calles del pueblo tocando la diana, en la que, como es obligado, nunca falta la tradicional "Dira, dira".

Informazio
gehiago:



Para más
información:



Geoparkea
Euskal Kostaldekoa - Costa Vasca

EUSKADI
BASQUE COUNTRY



Costa Vasca
Geoparque mundial de la UNESCO
Euskal Kostaldekoa
UNESCOren munduko Geoparkea

